

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Doneztebe eta Irurtzun arteko Ederbidea bizikletentzako ibilbidea egokitzeko lizitazioa argitaratu du Turismoak

760.000 euro bideratuko ditu eta %65ean Europak finantzatuko du

Ostirala, 2019.eko martxoak 15

Nafarroako Gobernuak, Merkataritza eta Turismo Zuzendaritza Orokorraren bitartez, 760.000 euro bideratuko ditu Doneztebe eta Irurtzun arteko pistak bizikleten ibilbidera egokitzeko, Ederbidea proiektuaren baitan.

[Lizitazio iragarkia](#) Nafarroako Gobernuaren Kontratazio Atarian argitaratu da. Interesa duten enpresek beraien eskaerak aurkeztu ahal izango dituzte apirilaren 1a bitartean [Nafarroako Lizitazio Plataforma elektronikoa](#).

Aipatutako herrietan oraindik ere bizikletaz igarotzeko egokiak ez diren eremuetan egingo dira lanak. Ibilbidearen %80a eskualde-errepikatik igarotzen da, eta gainontzeko eremuan egingo dira lanak, egun dauden pistak egokituz (4,5 kilometro egokituko dira bizikletaz erabili ahal izateko), edo berriak sortuz 2,1 kilometroko luzerarekin.

Gainera, bi pasabide metaliko eraikiko dira. Bata Jauntsaratsen eta bestea Kaxarnan, Bi Ahizpen artean, Irurtzundik gertu. Lanen baitan halaber ibilbidearen seinaleak ipintzea eta Jauntsaratsen atsedeen gunea sortzea ere jaso da.

Prozedura ireki bidezko tramitazioaren adjudikazioa, lote bidez egingo da, eta adjudikazio irizpidea kalitate-prezio erlazio izanen da. Lizitazioaren guztizko prezioa, BEZ barne, 760.686,75 euro izango da.

Bizikleta eta turismoa

Ziklistek erabili ahal izateko eta bizikletaz turismoa egiteko eremu hori egokitzea Europako bi proiekturen baitan egingo da. Aurrenekoa, [Ederbidea](#), Baiona Iruñearekin lotzeko Pirinio Atlantikoetako, Gipuzkoako Aldundia eta Nafarroako Gobernuaren arteko mugaz gaindiko proiektua da. Ibilbideak, halaber, Europako Batasunak Europa iparraldetik hegoaldera Nordkapetik (Noruega) Sagresera (Portugal) zehartzea ahalbidetuko duen [Eurovelo1 ibilbidearekin](#) bat egingo du.

Gogorarazi behar da aste honetan Bertizen Ederbidea proiektuaren Pilotaje Komiteak egindako bilera eta baita tokiko ekonomietan bizikletaz egindako turismoak duen eragin positiboaren azterketa jardunaldia.